Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 13a, asteartea — 88 — Martes, a 13 de mayo de 2025

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

*Goi mailako teknikari ekonomialari bat karrerako funtzionario izendatzea.*

Diputatuen Kontseiluak, honako erabaki hau hartu du 2025eko apirilaren 29an:

Diputatuen Kontseiluak 2023ko abenduaren 12an emandako erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiko goi mailako teknikari ekonomialarien lau plaza merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia onetsi zen (OP2023/101C).

Merezimenduen balorazioa amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak Gobernantza Departamentuko foru diputatuari aurkeztu zion prozesuan puntuazio altuena lortu zuten lau izangaiak goi mailako teknikari ekonomialariaren lau plazatan karrerako funtzionario izaera eskuratzeko proposamena.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako izapideak egin ondoren, proposatutako pertsona bat karrerako funtzionario izendatu zuten goi mailako teknikari ekonomialariaren plazan, eta lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia-egoeran deklaratu, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen babesean.

Hori dela eta, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.7.b) artikulua ikusita, bidezkoa zen zerrenda osagarrian puntuazio altuena zuen hurrengo izangaia, María Jesús Gorraiz Erausquin, karrerako funtzionario gisa sartzea proposatzea.

Hala, proposamen horri jarraikiz, Gobernantza Departamentuko foru diputatuak hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda berria onetsi zuen, eta hogei eguneko epea eman zion hautatutako pertsonari, María Jesús Gorraiz Erausquineri, parte hartzeko eta esleitutako lanpostuaren baldintzak betetzen zituela egiazta zezan.

Horretarako emandako epean, hautatutako pertsonak parte hartzeko eta esleitutako lanpostuaren baldintzak betetzen dituela egiaztatu zuen, eta, beraz, Gobernantza Departamentuko foru diputatuak karrerako funtzionario izendatzea proposatu du 2025eko maiatzaren 19tik aurrera.

Horiek horrela, Gobernantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* María Jesús Gorraiz Erausquin andrea goi mailako teknikari ekonomialariaren plaza batean karrerako funtzionario izendatzea eta honako lanpostu honi behin betiko atxikitzea:

— *Lanpostua:* 1892.1 GT, Ekonomialaria.
*Zuzendaritza Nagusia:* Zentroen Kudeaketa Integrala.
*Departamentua:* Zainketa eta Gizarte Politikak.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

*Nombramiento como funcionaria de carrera de una técnica superior economista.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 29 de abril de 2025:

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, de 12 de diciembre de 2023, se aprobó la convocatoria del proceso selectivo para el acceso, mediante concurso de méritos, a cuatro plazas de técnico/a superior economista de la Diputación Foral de Gipuzkoa (OP2023/101C).

Finalizada la valoración de méritos, el Tribunal Calificador elevó a la diputada foral del Departamento de Gobernanza su propuesta de acceso como funcionarios/as de carrera a cuatro plazas de técnico/a superior economista de las cuatro personas aspirantes con mayor puntuación.

Tras efectuar los trámites establecidos en las bases de la convocatoria, una de las personas propuestas fue nombrada funcionaria de carrera en la plaza de técnico/a superior economista y declarada en la situación de excedencia sin derecho a reserva de puesto, al amparo de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Por lo que, visto el artículo 78.7.b) de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, procedía proponer el acceso como funcionario/a de carrera a la siguiente persona aspirante con mayor puntuación en la lista complementaria, María Jesús Gorraiz Erausquin.

De acuerdo con dicha propuesta, la diputada foral del Departamento de Gobernanza aprobó la nueva relación definitiva de personas seleccionadas y concedió a la persona seleccionada, María Jesús Gorraiz Erausquin, un plazo de veinte días para que acreditara el cumplimiento de los requisitos de participación y de provisión del puesto asignado.

Dentro del plazo otorgado al efecto, la persona seleccionada acreditó cumplir los requisitos de participación y de provisión del puesto asignado, de modo que la diputada foral del Departamento de Gobernanza procedió a proponer su nombramiento como funcionaria de carrera a partir del 19 de mayo de 2025.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Nombrar a D.ª María Jesús Gorraiz Erausquin funcionaria de carrera en una plaza de técnico/a superior economista y adscribirla con carácter definitivo al siguiente puesto de trabajo:

— *Puesto:* 1892.1 TS Economista.
*Dirección General:* Gestión Integral de Centros.
*Departamento:* Cuidados y Políticas Sociales.

EK\CV GAO-I-2025-03395

*Bigarren.* Izendapen horrek 2025eko maiatzaren 19tik aurrerako ondorioak izango ditu; horretarako, izendatutako pertsonak 2025eko maiatzaren 14tik eta 16ra bitartean hartu behar du jabetzan bere plaza.

*Hirugarren.* Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko «Enplegu Publikoa» atalean, 14. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2025eko maiatzaren 5a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (3395)

*Segundo.* Dicho nombramiento tendrá efectos a partir del 19 de mayo de 2025, para lo cual la persona nombrada deberá tomar posesión de su plaza como funcionaria de carrera entre el 14 y el 16 de mayo de 2025.

*Tercero.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el apartado «Empleo público» de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en la base general 14.ª

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 5 de mayo de 2025.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez. (3395)

EK\CV GAO-I-2025-03395